

# J.A. Mogelen “Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos”: antzinatearen erabilpena euskararen apologiaren auzian

(“Basque versions of several selected harangues and speeches by the best Latin authors” by J. A. Mogel: the use of antiquity in the cause of apology of the Basque language)

Torregerai, Elena  
Eusko Ikaskuntza  
Miramar Jauregia - Miraconcha,41  
20007 Donostia

Villoslada, Iñaki  
Santa Klara kalea, 29, 4.esk  
20100 Erreterria

---

*J.A. Mogelen Versiones Bascongadas euskal literaturaren mugarri bat dira, euskarazko lehenengo exempla bilduma baitira. Euskal Herrian XIX. mendearen hasierako tradizio klasikoaren transmisioaren forma berezi hau W. Von Humboldektek gorpuzten duen euskal hizkuntzagatik Europan suzperu zen interesaren ondorio bat da. Horren ondorioz, Mogelen obra garaiko kultura europarraren ereduaren arabera euskara aurkezteko behararen emaitza da. Hauen arabera gure hizkuntza, hizkuntza klasikoaren perfektzioaren paradigmarekin konparaketari eutsi behar zion bera gaitasuna erakusteko eta kultur tresna bihurtzeko.*

*Giltz-Hitzak: Tradizio klasikoa. Erretorika. XIX. mendea. Euskara.*

*Las Versiones bascongadas de J.A. Mogel constituyen un hito en la literatura euskérica, ya que forman parte del primer catálogo de exempla traducido al euskara. Esta particular modalidad de transmisión de la tradición clásica en la Euskal Herria de principios del siglo XIX se produjo principalmente a causa de un interés europeo por la lengua vasca de carácter coyuntural, personificado en la figura de W. von Humboldt. Como consecuencia de ello, la obra de Mogel es el resultado de la necesidad de presentar en sociedad al euskara de acuerdo con los patrones del conocimiento en la cultura europea de la época, según los cuales, nuestra lengua debía resistir la comparación con el paradigma de perfección de las lenguas clásicas y demostrar su capacidad para convertirse en instrumento de cultura.*

*Palabras Clave: Tradición clásica. Retórica. Siglo XIX. Euskara.*

*Les Versiones Bascongadas de J.A. Mogel marquent date dans la littérature en langue basque, puisque elles font partie du premier catalogue d'exempla traduit en cette langue. Cette particulier modalité de transmission de la tradition classique au Pays Basque du début de XIXème siècle s'est produit à cause d'un intérêt européen par la langue basque de type conjoncturel, personifié par W. Von Humboldt. Par conséquent, l'oeuvre de Mogel est le résultat du besoin de présenter en société à l'euskara selon les modèles de la culture européenne de l'époque, pour lesquels, notre langue devait résister la comparaison avec le paradigme de perfection des langues classiques et démontrer ainsi sa capacité de devenir un instrument de culture.*

*Mots Clés: Tradition classique. Rétorique. XIXe siècle. Euskara.*

1802. urtean, Tolosan, F. de Lama editoreak J. A. Mogelek idatzitako izenburu luzeko liburuxka bat argitaratu zuen "*Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos. Demonstracion practica de la pureza, fecundidad y eloqüencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios Escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio*".

Europako literatura eta historiografiaren barruan, "Peru Abarka"ren autorearen beste liburutxo honek, gaiaren aldetik, batez ere, ez zekarren inolako berrikuntzarik, Erdi Arotik bertatik, baina, neurri handiago batean, Berpizkundearen garaitik, Mendebaldeko literaturan barnean Antzinatearekin zerikusirik zuten obra ugari baitzeuden: mundu klasikoaren autore nagusien berrikuspenak ziren batzuetan, edota herri bakoitzeko hizkuntzan Antzineko pentsamenduaren eta gertaeren itzulpenak bestetan, baita ere Erroman eta Grezian kokatutako obren argitalpenak, etabar.<sup>1</sup> Euskal Herrian, berriz, J.A. Mogelen lan hau, garai hartan, berri-berria zen, XIX. mendearen hasierara arte, Euskal Literaturan, inork ez baitzuen horrelako pausorik eman.<sup>2</sup>

Dakigunez, lehenagotik ere bazeuden Euskal Herrian letragigon batzuek egindako idazle klasikoaren hainbat itzulpen, edota, autore horien *dicta* famatuena euskarazko bertsiotzak. Baina Mogelen liburuaren berdin-antzekorik ez zegoen. Beraz, Mogelen testua arakatu ondoren gure buruari galdetzen badiogu zertan datzan Markinako apaizaren obraren berritasuna, esan beharko genuke lehenengo aldiz etsenplu bilduma oso bat irakur dezakegula euskaraz. Zer dira, baina, *exempla* hauek? Eta are gehiago, zer dira etsenpluen bildumak? Eta zertarako balio dute? Bada, lehenengo eta behin esan behar dugu etsenpluaren generoa, generoa bada, tradizio klasikoaren funtsezko elementua dugula. Berez, etsenplua Antzinateetik zuzenetik datorkigu; dagoeneko K.a. I. mendean autore ezezagun baten *Rhetorica ad Herennium*-ek,<sup>3</sup> horrelaxe definitzen zuen *exemplum*-a: "fidagarria den pertsonaia ospetsu batek kontatzen duen gertaera edo ahoskatzen dituen hitz gogoangarriak". Definizio hau guztiz latindarra izan arren, etsenplua aski ezaguna eta erabilia zen oraindik askoz lehenagotik, Greziako literatura eta historiografian, mota horretako istorio eta adibideak *polis* klasikoaren hizlarien artean oinarritzko tresnak izanak ziren eta. Baina, egia aitortzeko, ahozko eta idatzizko diskurtsoetan etsenpluen erabilerari fama handiena eman ziona, Cicero maisua izan zen. Bere obra ospetsuenetan mota guztietako etsenpluak aurkitzen ditugu: historikoak, moralak, filosofikoak, literaturatik ateratakoak, eta abar.<sup>4</sup> Hari irakurriz, konturatzen gara etsenpla hauek irakurleari eta publikoari portaeraren eredu gisa eskaintzen zitzaizkiela. Aldi berean, helburua gizartearen irudi idealizatu bat transmititzea zen.

Etsenpluak figura erretoriko gisa jarraituko du bere ibilbidea Antzinateetik, Erdi Aroan eta Aro Modernoan zehar. Gehienetan, "*miroir des princes*" deituriko tipoko liburuetan azalduko dira. Obra hauek gobernariei beren estatuak gobernatzeko aholkuak emateko idazten ziren. Hezkuntza lan hori Antzinateko etsenpluen bidez egingen zen nagusiki, errege eta jauntxoaren gertaera edo esakerak gogora ekarriz.

(1) I. Muñoz Valle, *Actitudes ante la cultura clásica a lo largo de la historia*, Madrid 1971.

(2) J. Kortazar, "Mogel eta bere garaia", *ASJU* 1982, XVI, 51 orr., Mogel XVIII. mendeko gizona izanez, guztiz neoklasikoa zen X. Altzibar, "J.A. Mogel", *Bidegileak* 11 orr., "*Versiones bascongadas...*" obra neoklasikoa da, irakasteko asmoarekin idatzita.

(3) *Rhetorica ad Herennium* IV 49, 62.

(4) A.W. Robinson, *Cicero's use of people as exempla in his speeches*, UMI 1989.

Horretarako, obra hauen egileek adibide hauek guztiak berariaz prestatutako bildumetatik ateratzen zituzten. Beraz, askotan ez ziren jatorrizko iturriak erabiltzen, hau da, Antzinateko klasikoak zuzenean ez ziren erabiltzen. Erdi Arotik aurrera, batez ere, bildumek beste helburu bat izango dute, erlijiosoa, gero ikusiko dugun bezala. Holako prozedurak, etsenpluaren jatorrizko zentzua aldatzen zuen noski, baina, aldi berean tradizio klasikoaren iraupenerako bide berriak zabaltzen zituen.

Erdi Arotik aurrera etsenpluen zabalkuntzarako eremu aproposena Elizaren predikazioarena izango da ia beti. Horretan eskeko ordenen nekeak eta lanak funtsezkoak gertatu ziren. Askotan fraile hauek sermoiak prestatzeko zituzten koadernoetan Ebanjeliotatik ateratakoekin batera Antzinateko etsenplu asko eta asko aurkitzen dira.<sup>5</sup> Eta hor argi ikusten da goian aipatzen genuena, hots, etsenpluen helburuaren aldaketa. Antzinateko etsenpluak politikarien hezkuntzarako erabiltzen ziren, baina Erdi Arotik aurrera zentzu politiko hori gobernuari buruzko tratatuetan oraindik gordetzen bada ere, etsenpluen helburu nagusia herritarren hezkuntza erlijiosoa izango da, eta ez lehen bezala, herritarren hezkuntza politikoa. Antzinateko jatorrizko etsenpluetatik teknika erretorikoa gordeko da bakarrik, pertsuasioarako tresna bat izaten jarraituko dute, alegia. Hau guztia kontuan harturik Erdi Aroko etsenpluez aritzean J. Le Goffek hurrengo esan ahal izan zuen: "*Un récit bref donné comme veridique et destiné à être inséré dans un discours (en général un sermon) pour convaincre un auditoire par une leçon salutaire*".

Hurrengo mendeetan etsenplua figura erretoriko gisa sendotuko da. Gehienetan, etsenplua pertsuasio modu bezala erabiltzen da predikatzaileen eta liburu moralen egileen artean.<sup>6</sup> Edonola ere, azpimarratu behar dugu apaizek eta moralistek aukeratzeko zuten etsenplu kopurua oso murrizta zela, anekdota gutxi eta ezagun batzuk erabiltzen zituzten eta. Horrelaxe etsenpluaren erabilera bera teknika bihurtu zen eta bertute edo pekatu bat ilustratzeko Ebanjelioekin istorioekin gertatzen zen bezala, etsenplu egokiak bazeuden, behin eta berriro errepikatzen zirenak. Era honetan, Scipio, buruzagi erromatarra lizunkeriaren kontrako etsenplu modua erakusten zen; Solonek, beste aldetik, gobernari zuzenaren irudia errepresentatzen zuen, eta abar. Era honetan, predikatzaileen lana errazten zen, publikoa ohituta baitzegoen etsenplu horiek entzutera eta, noski, bere esanahia ezagutzen zuen, istorioaren Antzinateko testuinguru historikoa berarentzat erabat ezezaguna izan arren. Predikatzaileentzat horren lagungarriak ziren etsenplu bilduma horietan kontatzen ziren anekdotak ia beti berberak izaten ziren.

Hau guztia kontuan hartu eta gero, gure ustez, J.A. Mogelen *Versiones bascongadas* liburua euskarazko lehenengo etsenplu-bilduma bezala defini daiteke. Bertan, Damocles eta Falisco maisuaren istorioekin batera, Alejandroren gaisotasuna, Catilinaren arenga, Ciceronek Catilinaren kontra egindako diskurtsoaren hastapenak, Germanikok soldaduei egindako errieta, eta lizunkeriaren kontrako Scipionen hitzak irakurtzen dira. Guztiak dira Antzinateko gertaera eta esaera aski ezagunak eta behin eta berriro errepikatuak. Baina Mogelen obraren bitxitasuna ez zetzan gaian, baizik eta euskararen erabilpenean Antzinateko ereduak zabaltzeko; horiek dira, gure ustez, bere obraren berrikuntza eta garrantzia, Euskal Literaturarako.

(5) J. Berlioz, M.A. Polo de Beaulieu, *Les Exempla médiévaux*, Carcassonne 1992, 19 orr.

(6) Ibid. 18 orr.

## I. Tradizio Klasikoaren Transmisioa

Mogelek berak liburuaren gipuzkerazko lehenengo edizioaren hitzaurrean hauxe adierazten digu: “*Es la primera vez que hablan en Bascuence Ciceron, Salustio, Tacito, Tito Libio, y Curcio*”. Dena den, Markinakoa ez zebilen erabat zuzen, izan ere, urte batzuk lehenagotik latinetik euskarara idatzitako itzulpen batzuk bazeuden: Silvain Pouvreaux egindakoak eta 1786. urtean Labastidek Cesarren Komentarioei buruz egindako itzulpena.<sup>7</sup> Lan hauek tradizio klasikoaren transmisioaren ikuspuntutik aztertu ondoren, esan behar dugu Antzinateko idazle nagusien testu batzuen euskaratze-lana letragizon gutxi batzuen ardura intelektualari zor diogula. Aldi berean, honek Euskal Herrian ere Europa osoan bezala kultura klasikoaren ezagutza gutxiengo baten eskuetan zegoela adierazten digu. Orobat, nabarmendu behar dugu, gure herrian Klasikotasunaren testuen itzulpen lana askoz ere neurri txikiagoan eman zela eta, batez ere, beranduago. Baina, ez zen kezka intelektuala bakarrik letragizon horiek idazle klasikoen euskarazko itzulpenak egitera bultzatu zuena; Mogelen obraren atzetik bazeuden beste interes batzuk.

Interes aniztasun hau itzultzeko aukeratutako testuetan bertan atzeman daiteke. Badakigu Markinakoa poesia latindarra zuela oso gustukoa, Horazio batez ere, Vargas Ponceri bidalitako gutunetan idazle honen erreferentziak azaltzen baitira. Gainera, bere iloba Bizenta Mogelen liburuan “*Ipui onac*”-etan berak itzulitako Esoporen alegiak azaltzen dira.<sup>8</sup> *Versiones bascongadas*-en testuak, ordea, historiagileenak dira. Testu horiek pertsonaia famatuaren diskurtsoak dira, hortaz, pentsa dezakegu, azken finean, Mogelen interes nagusia ez zela Salustio, Tito Libio edo Tacitoren pentsaera bera, baizik eta testu horien oratoria maila, hau da, beren eredu erretorikoa. Ikuspuntu honetatik, aukeraketa hori ez zegoen urrun bere poesiari buruzko gustuetatik, zeren eta Mogelek Horaziorenganako miresmena poetaren hizkuntz trebetasunean oinarritzen baitzuen. Momentuz, Mogelen lehentasuna ez zegoen Historiaren kontakizunean, baizik eta Antzinateko historiagileek pertsonaien ahotan jartzen zituzten hitzetan. Hizkuntz trebetasunagatiko kezkek, *Versiones* egiterakoan apaizaren helburu zehatza agerian uzten digu: euskal hizlarietako ondo hitz egiteko eredu eskaintzea. Baina, zeintzuk izaten ziren bere garaiko hizlariak? Elizako predikarzaileak, dudarik gabe, eta horientzat dira liburuxkaren diskurtsoak: “*Hai multitud de eclesiásticos que no pueden hacer unas pobres versiones...dejan por miedo la instrucción de sus parroquianos y he deseado darles doctrinas travajadas para que o las lean del pulpito o se faciliten en hablar al estilo de la religión, con lo que no habrá tanto trabajo en predicar.*”<sup>9</sup>

J.A. Mogelen bizkaierazko bertsioaren hitzaurreko azken lerro hauen arabera, badakigu apaiza oso kezkatuta zegoela elizgizonetako ez zutelako oratoria sakratua behar bezala lantzen.<sup>10</sup> Beraz, esan dezakegu Markinakoa helburu nagusia, bere obraren tradizio klasikoen itzulpenak eskaintzean, predikazioaren hobekuntzarako tresna bat

(7) J. Vinson, 128 orr.

(8) J. Kortazar, *op. cit.*, 49 orr., Mogelek Vargas Ponceri idatzitako eskutitz batean bere alegietako iturri klasikoak aitortu zituen.

(9) J. Gárate, “Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel”, *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 218-219 orr.

(10) X. Altzibar, “Juan Antonio Moguel y su obra literaria”, 352 orr.

ematea zela. Bere ustez, idazle klasikoen testu hauek oso baliagarriak ziren hizlari berriei diskurtsoaren teknikak erakusteko, ondo hitz egiteko eredu bat baitziren. Honekin guztiarekin, Mogelek Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisioaren ardatz bat erakusten digu, predikazioarena, hain zuzen ere.<sup>11</sup> Pentsatu behar dugu sermoiak nagusiki kultura gabeko laikoei zuzenduta zeudela. Beraz, beraietan Ebanjelioetako istorioak eta Antzinateko etsenpluak parekatzea oso garrantzi handikoa da, sermioen bidez, nola edo hala publikoari kultura forma bat eskaintzen baitzaio. Noski, kultura hori ez zen markagabea, Elizaren mezu bat zuenez, gizarte eredu bat proposatzeko eta jarraiarazteko diseinatuta zegoen. Edozein kasutan, helburu ideologiakoak oso zehatzak izan arren, horrek ez zuen, inola ere, galarazten Antzinateko etsenplu famatuen errepikapenak tradizio klasikoaren transmisioari laguntzea.

Beraz, predikazioa funtsezko elementua izan zen Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisiorako. Testamentuetako eta Antzinateko istorioen kontaketa bateratuak oinarrizko ezagupen maila ematen zion publikoari. Teknika honen arabera, Ebanjelioetako pasarteekin gertatzen den bezala, mundu klasikoari buruz errepikatzen zen anekdota bakoitzak bere garaia eta esanahia zituen. Antzinateko istorioekin batera, predikatzaileek testu klasikoetan agertzen diren ideia nagusi batzuk: dekadentzia, barbarotasuna, *otium*-a eta antzekoak, garai guztietako sermoietan transmitituko dituzte. Modu honetan, entzuleak kultur klasikoaren funtsezko kontzeptu eta ideia batzuk barneratzen zituen, testuinguru historikoa ezagutu ez arren. Azkenik, kontzeptu horiek guztiak bere kultura propioaren parte bihurtuko dira.

Tradizio klasikoaren erabilpena euskal predikazioan begi bistakoa da XVIII. mendeko bi euskal predikatzaile nagusien obretan, Aita Kardaberaz eta Aita Mendiburu. Hernanikoaren *Euskararen Berri Onak* gainera, euskara kultur hizkuntza bihurtzaren aldekoa izanik, latinaren eta grekeraren eredia onartzen zuen gure hizkuntzaren garapenerako. Edonola ere, biek sermoietan autore klasikoen aipamenak erabiltzen zituzten ideiak sendotzeko. Ohitura honek tradizio klasikoari oihartzun zabalagoa eman zion, biak ere bere garaiko euskal predikatzaile famatuenak izan baitziren. Entzulegoari dagokionez, Kardaberaz, bietako herrikoiena izan zen eta bere predikuak Euskal Herria osoan ziren ezagunak.<sup>12</sup> Mendiburu berriz, hizkuntz dotoretasunaz gehiago kezkatzen zen. Dakigunez, Mogelek bion sermoiak entzun zituen eta gustukoak izan zituen.<sup>13</sup> Beharbada Kardaberaz eta Mendibururen adibideak eta ondorengo bere bizitzako esperientziak —bizkaitarren utzikeria euskararen kontue-

(11) I. Villoslada, E. Torregerai, "Euskararen Berri Onak eta tradizio klasikoaren transmisioa XVIII. mendean Euskal Herrian", *Tokiko Historia III. Ihardunaldiak*, Gasteiz 1995 (prentsan).

(12) I. Villoslada, E. Torregerai, *op. cit.*

(13) J.M. Lojendio, "Mogel", *Egan* 1954, 2-4, 157 orr., dena den, Mogelek Kardaberaz nahiago zuen "Uste det libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian. Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. Kardaberaz libruak aditzen errazagoak dira Euskal-errietan, Mendibururenak baiño. Onak itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude) errazago egiten zaie Bizkaitarrei aditzea Kardaberaz itzker a giputz utsekoa, Mendibururen giputz-naparra baiño. Au ez da esatea, Mendibururen euskera ederra ez dala da egiaz eta itzaz garbiago ta euskeratsuagoak Kardaberaz zen libruetakoak baiño ala ere onenak leku zabalagoan aditzen dira, esan dedan arrazoiagatik. Nik ere oni jarraitu diot aleginez, arrazoi beragatik." X. Altzibar, "Juan Antonio Mogel y su obra literaria", *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, 324 orr.

tan—,<sup>14</sup> Mogelen iritzia gipuzkoarren alde makurtu zuten, bere ustez Gipuzkoako apaizak euskal hizkuntzak behar zuten trebetasun eta lanaz Bizkaikoak baino gehiago arduratzen ziren. Honek esplikatuko luke bere obratxoaren “*Versiones bascongadas...*”en lehenengo argitalpena gipuzkerazkoa izatea, Mogelek Probintzian aurkitu baitzuen bere itzulpen lanak merzi zituen errekonozimendua eta bultzada: “*Haviendo leído algunos clérigos guipuzcoanos las versiones bascongadas de las arengas latinas y gustados por la pureza del idioma, el impresor de tolosa deseo imprimirlas.*”<sup>15</sup>

Dena den, *Versiones bascongadas* idazteko ideia ez zen sortu Mogelen, euskal hizkuntzaren apologistaren, kezka intelektual propioetatik. Berez, apaizak testu latin-darrak euskarara itzuli zituen W. von Humboldten eskaera bati erantzuteko: “*...un pasaje de Salustio traducido por el Cura Moguel a instancia mía.*”<sup>16</sup> Lan honen bidez, Markinakoak prusiarrari lagundu behar zion Europako beste jakintsuen aurrean euskara aurkezten: “*El sabio prusiano quiere demostrar que el idioma bascongado es eloquente, puro y fecundo. Por su súplica e influzo, he hecho las versiones de varias arengas...*”, eta bide batez, hizkuntza klasikoen parean euskararen gaitasuna kulturaren edozein mailatan erakutsi behar zuten: “*euskararen garbitasun, aberastasun, zernahi adierazteko gaitasun eta adierazkortasun eta elokuentzia erakusteko eta frogatzeko*”<sup>17</sup>. Beste modu batean esanda, euskarak Euskal Herritik kanpora ateratzeko tradizio klasikoaren eredia jarraitu egin behar izan zuten Europako jakintsuen artean onartuta izateko.<sup>18</sup> Humboldttek eredu klasikoaren bidez euskara hizkuntza ikasgarria bihurtu nahi zuten.

## II. Testuen Azterketa

### II.1. *Versiones bascongadas*-en argitalpenak

Mogelek bide ezberdinak jorratu zituen bere obra argitaratzeko. Murgak eskatu zion bezala *Versiones bascongadas*-etako gipuzkerazko lehenengo bertsioa, bizkaieraz ere moldatu zuen eta biak argitaratzeko prestatu zituen.<sup>19</sup> Lehenago Tolosako F. de Lama editoreak gipuzkerazko bertsioa argitaratu zuen; geroxeago bizkaierazko bertsioa agertu zen. Bien artean ezberdintasun nabarmenak daude, lehenengo eta behin, argitalpen

(14) Hitzaurrea “*Sarri alkarregaz berba egin dogu, Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soñokoa darabilen askoren nagitasun, alperreteria ta ardurarik eza, euskerea ikasteko liburuakaz nururik ausi baga, bada eztaukee liburu bizkai euskerea irakatsi leienik.*”

(15) J. Garate, “Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel”, *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 218-219 orr.

(16) W. Von Humboldt, *Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua cantábrica o vasca*, RIEV, Donostia 1933, 71 orr.

(17) X. Altzibar, “Humboldt...”

(18) W. Von Humboldt, *Correcciones...*

(19) X. Altzibar, 29 orr. 52 o. “*Se Juntaron los amigos Murga, Consiliario de Vizcaya, Presidente, Ortes, Mazarredo, Azedo, Herran Torre alta, Corcuera, Romarate de numero, el Excmo. Sr. D. Josef Domingo de Mazarredo, veterano, e yo el Secretario nombrado por estas Juntas por ausencia de los Amigos Secretario y Vicesecretario (...)* Habiendo presentado D. Juan Antonio Moguel un Ensayo manuscrito de Poesía Bascongada en varias fábulas traducidas del Castellano y diferentes versiones Bascongadas impresas de algunas arengas de autores latinos se acordó darle por su aplicación y zelo manifestándole el sentimiento que tiene la sociedad de que el estado de sus fondos no le permita contribuir a la impresión de dicho Ensayo y le nombró Socio Literato” (Bilbao julio de 1802). Archivo de la Diputación de Alava (Fondo Prestamero). *Juntas Generales de la RS.B.* (eskuzko kopia).

moduetan: gipuzkerazko bertsoia aparteko liburuxka bezala argitaratu zuen Mogelek, aurrean azalgarria den hitzaurre batekin; bizkaierazkoa, berriz, *Peru Abarka* liburua-  
ren gehigarri bat bezala argitaratu zen. Sarrera moduan Mogelek bi apaizen —Fr. Pedro de Urliaren eta D. Juan de Sandiaren— arteko eztabaida<sup>20</sup> eskaintzen digu itzulpenen zergatia hobeto argudiatzeko eta bizkaitarren utzikieriaz euskararekin kezu azaltzeko. Gipuzkerazko eta bizkaierazko hitzaurren artean mamizko ezberdintasunak daude, gure ustez. Gipuzkerazkoak ideologikoki pisu handiagoa du, bizkaierazkoa, ordea, praktikara zuzenduago dago, ekintzara bultzatzeko pentsatuta. Dirudienez, Mogelek pentsatu zuen lurralde bakoitzeko irakurleek itzulpen beharrari buruz azalpen ezberdinak behar zituztela. Baina honetaz, geroago jardungo dugu.

*Versiones bascongadas*-ek argitalpen batzuk izan ditu urteetan zehar. Aspaldian J. Garatek *La época de Astarloa y Moguel* bere obra famatuan zerrendatu zituen. Lehenengo 1802. urtean Tolosan egin zen; 1857. urtean, Berlinen,<sup>21</sup> Carl August Fr. Mahn hizkuntzalariak bere *Denkmaeler der baskischen Sprach-n* sartu zituen. Horregatik hau bigarren argitalpentzat jotzen dugu. Lehenengo bi hauek gipuzkerako bertsoiak ziren, bizkaierazkoak, lehen esan dugun bezala, *Peru Abarkaren* argitalpen anitzekin aterako dira.

## II.2. Testuen aukera

Gipuzkera eta bizkaierazko bertsoien artean ezberdintasun gehiago ere badaude. Garrantzitsuenetarikoa bat testuen aukeraketan dago. Ez dugu pentsatu behar Mogelek intentzio gabeko testurik aukeratu zuenik, soilik beren dotoretasuna edota ikusgarritasunagatik. Etsenplu bakoitzaren atzetik asmo ideologiko bat zegoen eta itzulpenen aurkezpen orokorrean ere. Hori dela eta, Markinakoak latinetik euskarara itzuli zituen testuen aukera bera aztertzea da, oso datu esanguratsuak baitaude tradizio klasikoaren transmisioaren ikuspuntutik. Komeni da, Mogelen testuen selekzioa bi adarretatik aztertzea: batetik, testuen selekzioaren historia laburra egitea, horrela ikusiko baitugu tradizio klasikoari buruz zeuden iritzi ezberdinak eta perspektiba anitzak. Bestetik, idazleen selekzio bera, nagusiki historiagile latindarrena.

Hasiko gara ikusten, beraz, Mogelen liburuxkan azaltzen diren etsenpluak nola aukeratu ziren. Humboldték latindar testuak euskaratzeko oinarrizko enkargua egin zuen, hala ere, Mogelek mandatua aurrera eraman zuen modua polemikoa izan zen. "*Versiones bascongadas...*" en euskaratuko testuei buruzko eztabaida Humboldtén eta Mogelen arteko bitartekariarekin sortu zen, J.M. de Murga y Barredarekin hain zuzen, garai hartan Bizkaiko Diputazioko lehendakaria zenarekin.<sup>22</sup> X. Altzibarren iritzi, Murga Euskal Herrian Humboldtén informatzaile politikoa zen. Dirudienez,

(20) X. Altzibar, "J.A. Mogel"..., 11 orr., ematen duenez, bi elizgizon hauek Añibarro eta Mogel izango lirateke.

(21) Vinsonek esaten du 1847. Urtean izan zela.

(22) F. Verástegui, "La RSBAP, W. Von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política", *W. Von Humboldt Un puente entre dos pueblos*, RIEV 41, 1996, 513 orr. "...Don José María Murga y la Barreda, natural de la villa de Marquina en el señorío de Vizcaya, primogénito de Don Miguel Antonio de Murga y Andonegui, de edad de 7 años no cumplidos, se hallaba tan extraordinariamente adelantado en el saber, que traducía con facilidad y elegancia los autores clásicos latinos, los franceses y los italianos que leía y escribía corrientemente el carácter griego poseía la historia sagrada y la mitología"

ahalduna gizon kultura eta tradizio klasikoan aditua zen, Hunboldt bera bezala.<sup>23</sup> Idazlan politiko ezberdinak idazteaz gain Antzinateko pertsonaia ospetsu batzuen biografiak bildu zituen: "*Vidas de célebres varones griegos y romanos*".<sup>24</sup> Hau guztia kon-tuan harturik ez da harritzekoa Verastegui Murgaren eta Humboldtten arteko eskutizetatik aterata ematen duen informazioa. Bertan, prusiarrak euskal testuetako adibide bakarrak erlijiosoak direnez gero, bizkaitarrari Tacito, Salustio edo Tito Livioaren itzulpen batzuk bidaltzea eskatzen dio, ahalik eta literalenak posible bada, bere herriko filologoaren artean euskara ezagutzera emateko. Humboldtnek adierazten duenez, Murgari egiten dio enkargua kulturako pertsona zelako eta euskara dotorea hitz egiten duelako. Ematen duenez, Murgak ez zuen bere burua gai ikusi lana behar bezala betetzeko eta horregatik, J.A. Mogeli eskatu zion egiteko, Humboldtten beraren iritziz Bizkaiko hizkuntzalari hoberenetariko bat hura baitzen.<sup>25</sup> Markinakoak, bere kabuz, Humboldtten eskaerari Quinto Curcioaren etsenplu bat erantsi zion: "*Hizo aquel amigo con la mejor voluntad lo que se le pedía y añadió un trozo de Q. Curcio...*".

Baina, itzulpenak ez ziren izan Murgaren gustukoak, Markinakoak nagusiki arenga militarrek itzuli zituelako eta bere ustetan aukera horrek ez zuen Humboldtnek eskatutakoa betetzen. Eta horrelaxe adierazi zion prusiarrari hurrengo eskutitzean "*...pero por razones que hubo para ello, usó del dialecto Guipuzcoano que yo apenas entiendo; y fuera de esto eligió en todos los Autores citados arengas, que es donde la traducción, que Vm. Quería literal quanto fuese posible, exige mayor libertad; y de esta forma se tomó tanta que a veces pareció a mi escrupulosa conciencia que no solamente ponía unas figuras por otras, sino aún que se apartaba del sentido.*". Bere ustetan Mogelen hankasartze bat zena konpondu nahian, Murgak apaizari etsenplu proposamen bat egin zion Humboldtten oinarrizko eskaerari, bere iritziz, hobeto moldatzen zena: "*Así me ballé con que su trabajo, aunque mui apreciable y digno de remitirse a Vm. Con elogio como lo hago, no era propio para los fines que Vm. deseaba y hube de cansar de nuevo al mismo amigo, rogándole que me traduxera en ambos dialectos Vizcaino y Guipuzcoano, y con la mayor exactitud que permitiera el genio de ellas, las dos historias de Damocles, el favorito de Dionisio de Siracusa, y del Maestro de los niños Faliscos que por su sencillez recomienda y copia Rollin en el Tratado de los Estudios*".<sup>26</sup>

Mogelen lehenengo etsenpluen bildumak hurrengo anekdotak biltzen zituen: Quinto Kurzioaren Alejandro Handiaren gaixotasuna, Salustioaren Catilinaren hitzaldia, Ciceronen diskurtsoa Catilinaren kontra, Tacitoren Germanikoren hitzak soldadu matxinatuen kontra, Tito Libioren Scipionen diskurtsoa Hispaniako menpekoei, Dionisioaren Damoclesen istorioa eta Tito Libioren Falisco maisuaren kontakizuna.<sup>27</sup> Antzinateko etsenplu ezagunetariko batzuk, dudarik gabe. "*Versiones bascongadas...*" en argitalpenetan etsenpluen ordena batzuetan aldatzen bada ere, guztietan anekdota berberak azalduko dira.

(23) J. Gárate, "Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel", *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 215 orr.

(24) X. Altzibar, "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera* 1986, 1, XXXI, 24 orr.

(25) X. Altzibar, "Humboldt, Astarloa eta Mogel", *RIEV* 41, 589 orr.

(26) F. Verástegui, *op. cit.*, 514-515 orr.

(27) J. Gárate, *La época...* 54-55 orr. A. Abbadie, *Grammaire euskarienne*, 44 orr. Rodríguez Ferrer, 16 orr. Allendesalazar, *Euskalerrriaren alde* V, 586 orr. Aita Zavalak esaten zuen bertsiok bizkaieraz zeudela. 1802. urteko lehenengo argitalpean Talisco eta ez Falisco idatzita dago.



Beraz, zer esan nahi du hiru pertsonaren partehartzeak liburuaren itzulpenen aukeraketan? Lehenengo eta behin, dudarik gabe, gaia garrantzitsua zela. Humboldtten asmoa ez zen nolana hikoia, berak ikuspegi filologikotik ezagutzera eman nahi zuen euskara Europan. Berarentzat, itzulpenak, modu batean, euskararen aurkezpen karta ziren. Humboldtnek egin zuen eskaeran Salustio, Tito Libio eta Tacito egotea guztiz esanguratsua da; hirurak historiagileak ziren, K.a I. mendeko. eta K.o. I. mendeko autoreak, Erromako urrezko garaietako kronikalari ospetsuenak; baita ere Erromako gerra inportanteen kontagileak eta, aldi berean, pentsalari politikoak. Humboldtnek euskaraz ezagutzen zituen testu bakarrak erlijiosoak zirenez, politikaz aritzen ziren testuetan euskararen gaitasuna erakutsi nahi zuen. Inola ere ez da ahaztu behar prusiarrak autore hauek aukeratu zituela bere herriko filologoei erakusteko. Orduan, pentsa dezakegu jakintsu horien artean hiru idazle latindar hauek errespetatuenak edo ospe handienetakoak izango zirela.

Mogelek Humboldtten asmoa ezagutzen zuen, eta euskarara itzultzeko autoreen obretatik arenga militarrik aukeratu zituen. Baina ez kasu guztietan, honetan Murga ez zen zuzen ibili. Apaizak bere kabuz aukeratu zituen etsenpluak aztertzen baditugu, Quinto Curcioren Alejandro Handiaren gaisotasuna eta Ciceronen Catilinen kontrako hitzaldia Senatuaren aurrean, konturatuko gara Mogelek arenga baino gehiago indar dramatikoko unek bilatzen dituela. Markinakoak halako "klimax" behar du pertsonaien hitz jariora justifikatzeko eta horregatik estutasuneko momentuak aukeratzeko. Hau guztia oso argi ikusten da liburuaren beste etsenpluak ere aztertzen baditugu: Catilina bere azken batailan, Germanico matxinatuen aurrean edota Scipio garaituei errukitasuna eskaintzen. Guztiak krisi larriko unek dira eta aiprosenak dira hizkuntz trebetasuna erakusteko. Beraz, Mogelek bere etsenpla bilduma osatzeko muturreko egoerak aukeratzeko, non pertsonaiek diskurtso aberatsak egiteko aukera ederra baitzuten, eta gogora dezagun, gure ustez, Mogelen kezka nagusia "*Versiones bascongadas...*" idazterakoan euskal hizkuntzaren aberastasuna eta gaitasuna frogatzea zela. Hortan datza bere etsenpluen aukeraketaren arrazoibidea eta honek ere esplikatuko luke Ciceroren Catilinen kontrako diskurtsoa sartzea beste etsenpluen artean. Esan dugu Humboldtnek Salustio, Tito Libio eta Tacito eskatu zituela euskararen aberastasuna erakusteko, baina Europako tradizio klasikoaren arabera hizkuntz trebetasunaren irudia, dudarik gabe Cicero zen. Are gehiagó, Euskal Herrian bertan Aita Mendibururen hizkuntz trebetasuna adierazteko, Cicero euskalduna esaten zaio. Hori dela eta ez da batere harrizkoa Mogelen helburua euskararen gaitasuna erakustea bazen, Ciceroren hitzaldi bat euskaraz ematea; zer hori baino frogabide hoberik, euskararen gaitasuna erakusteko?

J. M. de Murga ordea, ez zegoen ados Mogelen aukeraketarekin. Hala eta guztiz ere, Humboldtten enkargua jaso zuenean Markinakoa gizon aiprosena iruditu zitzaion lana betetzeko. Beharbada, politikariak pentsatu zuen Mogelen aukera guztiz bestelakoa izango zela apaizaren hezkuntza kontuan harturik. Dakigunez, *Peru Abarkaren* autoreak eskola garaitik filosofiarekin harreman estuak izan zituen. Calatayuden ospe handiko maisu bat izan zuen, B. Pou,<sup>28</sup> *Theses Bilbilitanae Institutionum Historiae*

(28) L. Villasante, "Miscelánea. J.A. Moguel, estudiante en el colegio de jesuitas de Calatayud", BAP 1962, 325-327 orr.

*Philosophicae*-en autorea. Obra honi Mogelek latinezko hitzaurre bat idatzi zion.<sup>29</sup> Hel-dutasunean apaizak filosofia ikasten jarraitu zuen eta Pascalen pentsaerak itzuli zituen.<sup>30</sup> Hori zela eta, pentsa zitekeen Mogelen aukera latinetik euskarara tradizio klasikoaren testu famatuak itzultzean filosofiaren aldetik joango zela. Edota poesiaren aldetik, Mogelek, izan ere, Horazio zuen gustukoa eta horregatik, Astarloari bidalita-ko eskutitzetan Markinakoak askotan erabiltzen zituen Horazioaren hitzak.<sup>31</sup> Honez gain, Mogelek, idazle latindarrak bezala, pentsatzen zuen poesiak gizonen erabilgarri-tasunerako eta gusturako izan behar zuela, hau da instrukzioak erakargarria izan behar zuela. Baina Humboldtten enkargutik desbideratu zenean Quinto Curcio eta Cicero-nen etsenpluak aukeratu zituen, biak, dramatikoak izatean, aproposenak irudituko baitzitzaizkion euskararen aberastasuna eta malgutasuna frogatzeko.

Murgaren ideia itzulpen selekzioari buruz berriz, oso bestelakoa zen. Berak pro-posatzen zituen etsenpluak, Damoclesen ezpataren istorioek eta Falisco maisuaren kontaerek, ez zuten zer ikusirik Mogelek egindako aukeraketarekin. Azken bi etsen-plu hauetan inportanteena ez zen hitzaldiaren estilistika, baizik eta testuaren mezua, guztiz moralizantea zena. Gogoratu behar dugu Murgak Antzinateko pertsonaia ospetsuen biografiak idatzi zituela, beraz, berarentzat tradizio klasikoaren erabilgar-ritasuna ejenplaridatean zetzan eta horregatik ez zituen Mogelen itzulpenak gustu-ko izan, hizkuntza mezua baino garrantzitsuagoa baitzen. Bestetik, Murgak Mogeli egindako gomendioaren bidez, iturrien berri ematen digu eta horrela badakigu bi etsenplu hauek Rollinen tratatutik atera zituela. Rollin, XVII. mendeko Frantzian erretorika klasikoaren maisu ospetsua izan zen. Antzinatean aditua, bere obra ezagu-nenean, *Ikasketen tratatuan*, aholkuak ematen erretorika hobetzeko eta publi-koaren sentimenduak astintzeko. Helburu horrekin, bere ustez, Antzinateko etsenplu esanguratsuenak izan zitezkeenak bildu zituen.

Hortaz, gure ustez "*Versiones bascongadas...*"en egituran apurketa nabaria dago. Alde batetik, Mogelek aukeratutako testuak daude, Alejandro Handia, Catilina, Cicero, Germanico eta Scipioren arenga militarrek, eta bestetik, Murgak proposatu-takoak, Damocles eta Falisco maisuaren istorio moralistak. Ildo honetatik esan deza-kegu bi lagun bizkaitarrek tradizio klasikoaren erabilgarritasunaren bi ideia ezberdinak zituztela, apaizarentzat testu klasikoak, kasu honetan, euskararen gaita-suna neurtzeko tresna dira, politikariarentzat ordea, edozein kasutan, tradizio klasi-koak bere ereduaren funtzioa gorde behar du. Dena den, iritzi ezberdintasun honetan, gure ustez, ñabardura ideolojiko sakona ikus daiteke, guztiz garrantzitsua. Mogel predikatzailea izateaz gain hizkuntzalaria zen eta horregatik euskararen tre-betasuna lantzeaz arduratzen da batez ere. Murgak, politikaria izanik, kontrol lana zehatza egiten du. Bere kezka nagusia, hizkuntz dotoretasunez gain, euskaraz ema-ten denaren komenientzia politikoa da eta aukeran, nahiago ditu mezu moralaz bete-tako etsenpluak.

(29) X. Altzibar, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Frai Bartolomé*, Bilbo 1992, 117 orr.

(30) X. Altzibar, *J. Antonio Mogel Urkiza. Jaiotzatik 250. urtemuga*, Eibar-Markina 1995, Mogelek *Pascalén gogamenak* izeneko obra 1790. urtean itzuli zuen.

(31) A. Zelaieta, *Peru Abarcáren berrinakurtzea*, Donostia 1979, 118 orr. Horacio, *Ad Pis.* 139 *Ad Pis.* V.

### II.3. Itzulpenak eta neologismoak

J.A. Mogelek, Murgak eskatuta, "*Versiones bascongadas...*" en bi bertsio egin zituen, bat gipuzkeraz eta beste bat bizkaieraz. Hemen ez dugu egin behar bi euskalkien arteko ikerketa filologiko konparatiborik, baina bai esango dugu itzulpenen artean ezberdintasun nabarmenak daudela, batez ere bi arlotan: perifrasiaren erabilpena eta hitzen aukeraketan.

Adibide moduan ikus ditzagun Salustioaren testuaren bertsio ezberdinak:

*Jatorrizko testua:*

*"Comptum ego habes, uerba uiris uirtutem non addere; neque ex igaro strenuum, neque fortem ex timido exercitum oratione imperatoris fieri. Quanta cujusque animo audacia natura, aut moribus inest, tanta in bello patere solet. Quem neque gloria, neque periculo excitant, nequincquam hortere, timor animi auribus officit."*<sup>32</sup>

*Gipuzkeraz:*

*"Ezagaturic daducat, ene Soldaduac, ez dirala itz soil, ta utsequin azcortcen, ta pizcortcen guizonen biotz erori, ta macalduac. Soldadutegua, nagui ta buru-zalea bada, leena gueldituco da, erausi, jardun, ta equin guciequin."*

*Bizkaieraz:*

*"Ezagaturik daducat, neure soldaduak, eztireala berba soil ta utsakaz azkortu ta bizkortuten gizonen biotz iausitu ta makalduak. Soldautegua nagi, burugin ta lepozalea bada, irautsi, iardun ta ekin guztiakaz leena geratuko da eta igituko ezta ezetara."*

Goian esan dugun bezala hiru itzulpenen arteko ezberdintasuna nabaria da. Mogelek perifrasiak erabiltzen ditu esaldiari jatorrizko zentzua bilatu nahian, baina ez du inolaz ere itzulpen literalik egiten. Modu honetan erakusten du euskararen aberastasuna, baina aldi berean, Mogel Salustioaren testua interpretatzen ari da. Hau guztia oso argi ikusten dugu Mogelen itzulpenen ondoan gaur egungo itzulpen kritiko bat jartzen badugu:

*"I am well aware, soldiers, that words do not supply valour, and that a spiritless army is not made vigorous, or a timid one stout-hearted, by a speech from its commander. Only that degree of courage which is in each man's heart either by disposition or by habit, is wont to be revealed in battle. It is vain to exhort one who is roused neither by glory nor by dangers; the fear he feels in his heart closes his ears"*<sup>33</sup>

Ikusten dugun bezala, Mogelek itzulpenetan Catilinaren diskurtsoaren ideia edo mezua atera du, baina ez du hitzez hitz euskaratu. Hori zen Murgak ikusi zuena Mogelen bertsioak irakurtzean eta kezkatuak utzi zuena. Horregatik, apaizak Salustioaren testuaren beste bertsio bat egin behar izan zuen Humboldtentzat, eta honek *Adelungen Mithridatesi zuzenketak* liburuan sartu zuen. Gipuzkerazko itzulpenaren beste bertsio bat zen:

(32) Salustio, *Cat.* 58.

(33) *Sallust*, Oxoniensis 1968.

*“Ezaguturic daducat, soldaduac ez diela itzac guizonai azcortasunic erasten; ta aguintariaren irautnsi ta equiñ-equin ez dala Soldauteguia nagui baldana bada pizcortzen, ez da ere beldurtia sendotzen”<sup>34</sup>*

Aldaketa, ordea, ez zen hain handia. Izan ere, itzultze-lanari dagokionez Mogelek uste zuen testuak euskaratzeko inportanteena ez dela jatorrizko hitzei leial izatea, baizik eta euskararen dotoretasuna. Beraz, itzultzaileak testuaren mezua errespetatzen badu, bere hizkuntz trebetasunaz kezkatu behar du. Garrantzitsuena ez da testuaren mamia, hizkuntzaren zuzentasuna baizik, kasu honetan, euskararen zuzentasuna.

Euskalki bat baino gehiago erabiltzean Mogel bakoitzaren aditz, hitz eta modu propioak erabiltzeaz arduratu zen. Hitzei dagokienez, esate baterako, gipuzkerazko testuetan aurkitzen ditugun *etsai*, *burni*, eta *eman* hitzak bizkaierazko itzulpenetan *arerioa*, *burdin*, *emon* gisa azaltzen dira. Gure ikerlanarentzat interesgarriagoa da, dudarik gabe, Mogelek bere itzulpenetan erabiltzen duen hiztegia. Idazle klasiko hauen testuetan askotan Erromako testuinguru politiko eta historikoaren konzeptuak azaltzen dira. Horregatik, interes handiko gauza iruditzen zaigu Markinakoak euskaraz darabilen terminologia berezia aztertzea, prozesu honetan atera daitezkeen ondorio ideolojikoak oso aberatsak baitira. Erromari dagozkion konzeptu batzuk euskaratzeko neologismoak erabiltzen ditu batzuetan, baina, beste batzuetan Mogelen garaiko euskal erakundeen izenak edo Espainiako Koroaren erakundeak ematen ditu Antzinako erakundeen ordezko gisa.

Hona hemen hitz deigarrienen zerrenda:

<i>Centurio</i>	<i>Euntaria</i>
<i>Consul</i>	<i>Ondocuslea</i>
<i>Forum</i>	<i>Auzitegia</i>
<i>Imperator</i>	<i>Agintari</i>
<i>Imperium romanum</i>	<i>Erromako agintaritza</i>
<i>Legatos</i>	<i>Ekautuak, bialkinak</i>
<i>Res publica</i>	<i>Taldeaguintea/Taldegauza/Taldelurr</i>
<i>Summus uir</i>	<i>Abade nagusia</i>
<i>Senatus</i>	<i>Batzarra</i>

Zalantzarik gabe, hitz andana honetan Erromako konzeptu politiko nagusien interpretazio pertsonal baten aurrean gaude. Gehienetan, gure autoreak Antzinateko erakunde politikoak bere arokoekin asimilatzen ditu eta horregatik lehenengoak izendatzeko bere garaiko hitzak erabiltzen ditu. Horrela, botere eta justiziarekin zerikusia duten hitzak ordezkatzeko XVIII. mendeko hitzak darabiltza: *agintari*, *auzitegi*, *batzarra*. Erromako erakundeak bere garaikoenekin ezin direnan pareketu, ordea, Mogelek neologismoak erabiltzen ditu: *euntaria*, *ondocuslea*, *taldegauza*.

Orain, ikus dezagun Mogelen interpretazio hauen esanahi ideologikoa hitzez hitz: — *Consul*:

Mogelek bi hitz erabiltzen ditu *consul* itzultzeko: *ondocusle* eta *begirale*. Hala ere, bi hitzei zentzu berbera eman nahi zien: zainketa lana. Dakigunez, *consul* Erromako

(34) W. von Humboldt, *Correcciones y...*, 74 orr.

errepublikako goi kargu nagusia zen, oreka eta kontrol funtzioak betetzen zituena. Ikuspegi honetatik kontsulak estatuko goi mailako boterea errepresentatzen zuen. Mogelek *begirale* titulua ematen dio konsulari intentzio osoz. Berarentzat consula Erromako *begiralea* edo *ondoecuslea* da, hitz batez, Erromako zaindaria zen, eta ez zeukan agintzeko gaitasunik.<sup>35</sup>

Aldiz, Mogelek *imperator* euskaraz definitu behar izan zuenean *agintaria* erabili zuen, honek agintzeko gaitasuna bai baitzeukan. Mogelek, Erromako gizartean boterea edo agintzeko gaitasuna itzuli behar duenean *agintari* edo *gerra-buru* hitzak erabiltzen ditu, hau izango litzateke adibidez Falisco maisuaren istorioaren kasua: "Erromarrac inguratu cituzten Faleriocoac Camilo Aguintari, edo guerra-buru zutela.", "Camilo agintari edo buru ebeela..."

— *Senatus*:

Mogelek *Senatus* batzarra hitzarekin itzultzen du, baina erabilpen ezberdinak ematen dizkio. Senatua Erromako *patresen* bilera zen, benetan gobernuaren burua, estatuko erabakiak hartzen zituena. Erabat aristokratikoa zen eta itxia. Erakunde honen izena itzultzeko *batzarra* hitzaren aukeraren zergatia Mogelek berak adierazten digu: "Para la voz Senado tenemos en uso Batzarea es decir Junta de ancianos, o varones de maduro juicio y autoridad pública". Erromako senatuaren esanahi politikoa guztiz ezberdina izan arren, XVIII. mendean oso ohikoa zen asanblada aristokratikoak Erromako senatuarekin identifikatzea, ohore emateko modu bat bezala. Baina esan dugun bezala, zentzu politikoa erabat ezberdina zen.

— *Legatos*

Erroman legatu hitza bi funtzio ezberdinetako erabiltzen zen. Cesarren garaitik legatua legio baten agintea zuen ofiziala zen, senatuaren partaide zen eta enperadorea ordezkatzeko zuen. Gero, Prinzipadoaren hastapenetan legatua askotan probintzia inperialetako gobernadorea zen. Mogelek itzulitako Tacitoren testuan legatuak Senatuaren enbaxadoreak dira, enperadorearen errepresentanteak dira eta hiru kasuetan zentzua berbera da.<sup>36</sup> Hala ere, Mogelek testu bereberek legatos hitzarentzat bi euskal ordain eskaintzen dizkigu: *batzaarreko ecautuak* eta *bialkinak*. Gure autoreak euskararen aberastasuna erakutsi nahiz, irakurleari hitz berbera itzultzeko aukera ezberdinak ematen dizkio.

— *Forum*

Auzitegia, eztabaidatzeko bilerak egiten den lekua. Baina Antzinatean, batez ere Erromako errepublikaren garaian eztabaida horiek judizialak izateaz gain, politikoak ere baziren. Foruma irekia zen, eta sistema politikoa mugatua izan arren, auzi politikoak denak entzuteko lekua bazegoen. Baina Mogelen Antzinateko Errejimenez gizaratean ez dago eztabaidarako aukerarik, sistema politikoa absolutista zenez eraba-

(35) Larramendik bere hiztegian *consul* itzultzeko *bacarquidea* proposatzen du, baina aukera honetan ez dago Erromako erakundearen arrastorik.

(36) Tacito, *Ann.* I, 42 "*hic tantum, interfici centuriones, eici tribunos, includi legatos...*" "*Hostium quoque ius et sacra legationis et fas gentium rupistis*" 43 "*Vos quoque, quorum alia nunc ora, alia pectora contueor, si legatos senatui...*".

ki guztiak erregearen esku daude. Horregatik auzitarako egiteko leku bakarra epaitegia zen, eztabaidagarria zen gauza bakarrak arazo judizialak ziren eta. Orduan, ulergarria da Mogelen aukera Forum hitza itzultzerakoan, eztabaidatzeko lekua hartu behar bazuen, bere garaiko eztabaida-leku bakarra auzitegia zen.

— *Summus uir*

*Abade nagusia* hitzen aukeraketa itzulpena egiteko etsenpluen moldaketa ideologikoaren adibide zuzena da. Bertan, Mogelet, elizgizona zenez, erlijioarekin zerikusia duen guztia kristautzen du, Scipio eta Tiberio Gracoren garaia Kristo aurrekoa bazen ere. Honek etsenpluen deskontestualizazio sakona adierazten digu eta antzinatearen moldaketaren adibide paregabea da.

### III. "Versiones Bascongadas..." en Azterketa Ideologikoa

#### III.1. Hitzaurreak:

J.A. Mogelet bi sarrera moduko argibide testu ezberdin prestatu zituen "*Versiones bascongadas...*"etako gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsiotarako. Gipuzkerazkoan gatzelerazko hitzaurre bat dugu, eta bizkaierazkoan berak deitutako "autua" edo bi elizgizonen arteko euskarazko eztabaida agertzen da. Formaren aldetik biak oso ezberdinak badira ere, funtsean sarrera argibide hauetan Mogelet helburu berbera adierazten du: "*euskereak badituala berba bizkor, apaindu, zoli ta adiutuak gauza goratuak azaldetako*". Hitz batez, euskara edozertaz tratatzeko gai dela. Hori dela eta, esan dezakegu bi bertsioren oinarri ideologikoa oso antzekoa dela.

Gipuzkerazko argitalpenaren hitzaurrea mamitsuena da, zalantzarik gabe. Bertan, Mogelet bere kezka hiru ataletan deskribatzen du: lehenengoa, euskararen barbarotasunaren ideia deseuztatzea; bigarrena, euskararen gaitasuna frogatzea hizkuntza klasikoaren ereduaren bidez; eta hirugarrena, euskaldunei erakustea beren hizkuntzaren balioa. Azken puntu hau da hain zuzen ere bizkaierazko bi elizgizonen arteko elkarrizketaren argudio nagusia eta horregatik, gure ustez, hitzaurretako lotura puntu nagusia du.

Mogelet amorrubizia erakusten du euskara hizkuntza barbaroa deitzen dutenen kontra: "*...que el Bascuence es un lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia*". Barbarotasuna Antzinateko egunetatik gaur egun arte bazterte forma bat da.<sup>37</sup> Talde zabal honetan sartzen den guztia tradizionalki zibilizaziotik at geratzen da, eta kultura nagusitik kanpo kokatzen den guztiak ez du jakintsuen interesa merezi. Euskara barbarotasunaren barnean uzteak kultur hizkuntzen artean ez dagoela suposatzen du eta, ondorioz, ez dela gai goi mailako pentsamenduak adierazteko. Kalifikazio honen bidez, euskara tradizio klasikoaren mundu banaketaren arabera sailkatzen ari da, alde batetik zibilizatuak, eta bestetik barbaroak. Dakigunez, greziarrek sortu zuten lehenengo aldiz barbaro hitza, bere kulturatik kanpo zegoen guztia definitzeko.<sup>38</sup> Greziarren definizioa, hasieran, hitz egindako hizkuntzan oinarritzen zen.

(37) Zenbait idazle, *Occidente y el otro: una historia de miedo y rechazo*, Gasteiz 1996.

(38) J. De Romilly, "Les barbares dans la pensée de la Grèce classique", *Phoenix* 1993, , 2, 283-292 orr.

Berez, barbaro hitza, bar-bar espresiotik dator, greziarrentzat ulertezina ziren hizkuntza guztiak deskribatzeko erabiltzen zen onomatopeia mespresagarritik. Beranduago konzeptu politikoekin nahastu bazen ere, barbarotasunaren oinarritzko konzeptu hau gorde zen eta, horrela hizkuntza zibilizazio neurtzeko tresna bat bezala gorde zen. Honetan oso nabaria da tradizio klasikoaren oinordetza gure kulturaren. Horregatik ere ez da harrigarria Mogelek erabilitako argudio euskararen barbarotasuna deuseztatzeko: "*El señor Bowles, que ha viajado por la España asegura que la lengua Bascongada suena dulcísimo al oído; nada tiene (según Scaligero) de barbaro, nada de estridor de dientes, es dulcísima, suavísima, y sin duda antiquísima*". Beraz, Mogelek erakutsi nahi du euskara ez dala bar-bar mespresagarriaren antzeko hizkuntza bat.

Ideolojikoki tradizio klasikoaren arabera sailkatuta zegoen mundu intelektual batean aritzeko barbarotasunaren barnean konsideratuta izatea gainditu behar zen oztopo bat zen, dudarik gabe. Hori egiteko Mogelek aukeratu zuen bidea ez zen pentsamendu klasikoarekin haustearena, baizik eta euskera bertan sartzearena. Bere itzulpenen bidez, Markinakoak latina eta euskararen arteko konparaketa bat proposatu zuen, bien artean elokuentziarako iaotasunean ezberdintasunik ez zegoela frogatzeko: "*Si se continua en semejantes versiones, y se aplican a esta lengua las reglas oratorias, escribiendo arengas originales, no se publicará que es lengua grosera*". Hau ere izango litzeteke euskarara itzultzeko erretorika latindarraren testu nagusien aukeraketaren beste arrazoi bat: "*...he hecho las versiones de varias arengas, y oraciones selectas de Q. Curcio, Tito Libio, Tacito Salustio, y tambien las de los dos exordios de las dos oraciones de Ciceron contra Catilina: todas piezas de la mayor elegancia*", "*Para el estilo de sencilla elegancia he vertido dos Anecdotos latinas...*". Mogelen itzulpenei esker euskarak erakutsiko du gai dela kultur hizkuntzetan adierazten den guztia latinaren dotoretasun berberarekin komunikatzeko. Beraz, Markinakoak barbarotasuna gainditzeko dotoretasunaz baliatzen da, euskara hizkuntza barbaroa den ideia aldentzeko: "*Ruego a los Sabios de la Nacion instruidos en los idiomas Hebreo, Griego Latino lean estas versiones oratorias, y nos digan despues, si es pobre, infecunda, y mercenaria la lengua antigua de España: si es grosera, barbara, ineloqüente*".

Etsenplu bilduma guztietan bezala "*Versiones bascongadas...*" en helburu nagusia pertsuasioa da. Dakigunez, pertsuasioa oratoria eta erretorikaren oinarri nagusia da. Mogelek euskara tradizio klasikoaren parean kokatu behar duenez, erretorika klasikoaren autore nagusiaz baliatzen da: "*¿Si una lengua de pura invención, formada a costa de mendigar voces a otras varias, imperfectísima en su cuna, pudo llegar para el siglo de Augusto à tal grado de elocuencia, a qual podría llegar un idioma rico y fecundo en voces y expresiones enérgicas, suavísimo, y dulcísimo, si hubiera hallado unos genios como los de Salustio, tito Libio, Tacito, y Tulio para reducirle al arte oratorio ?*". Horrela elokuentziarako trebetasuna bera pertsuasio tresna bihurtzen da. Mogelek latinaren testu onenak aukeratzen ditu bere irakurlegoa komentatzeko. Baina Markinakoak gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsoietan oso ondo ezberdintzen ditu bere publikoaren beharrak eta "*Versiones bascongadas...*" etako erabilpena.

Gipuzkerazko hitzaurrean Mogelek erakusten digu obra hau hedakuntza zabalerako prestatu duela: "*Ruego a los sabios de la Nacion instruidos en los idiomas Hebreos, Griego y latino lean estas versiones...*". Besteak beste, apaizak "*Versiones...*" itzuli ditu,

lehenengo eta behin Espainiako ikerlarien ezjakintasuna konpontzeko “*Si los Mayenses, Nicolas Antonios, los Martis, Belazquezés, Bayerès hombres à la verdad de una vasta erudición hubieran tenido la curiosidad de estudiar el lenguaje antiguo de España...*”; bigarrenez Humboldt enkargua betetzeko: “*Un noble y Sabio Prusiano, llamado Varon de Humboldt (...) Venia comisionado de alguna Sociedad de Sabios, que intentan descubrir las Lenguas matrices, primitivas u originales*”; hirugarrenez, euskaldunen hizkuntzarekiko utzikeria salatzen: “*Pero es preciso confesarlo con vergüenza (...) Los que se precian de leer decentemente la lengua francesa a costa de violentar los labios, y fatigarse en tomar lecciones, se ven confusos quando toman un libro Bascongado*”; eta azkenik, predikatzailentzat: “*Advierten lo mismo en algunos Predicadores tratando en asuntos mas abstractos y elevados*”.

Gipuzkerazko bertsioaren argitalpenean asmo ideolojiko sakona dago, hizkuntzei buruzko garaiko eztabaida mamitsuenetan sartzeko helburu zehatza somatzen da. Humboldt enkargutik abiatuta gipuzkerazko hitzaurrea euskararen apologiaren dokumentu bat bihurtzen da. Eta gainera testuaren argudio nagusia tradizio klasikoaren ildotik egituratzen da. Hori dela eta, esan dezakegu liburu honetan nola edo hala euskal literaturaren oinarritzko gaietako bat, hau da, euskararen apologiaren auzia Antzinatearen eredu ideolojikoetik bideratu zela. Mogelen obraren asmo nagusiaren sakontasun hau “*Versiones bascongadas...*”etako bizkaierazko bertsioan galduko da. Azken honetan, apaizaren helburua erabat pedagogikoa da, berak aitortzen duen bezala “*Versiones...*” hauek predikatzailen hezkuntzarako prestatuta daude: “*Sarri alkarregaz berba egin dogu, Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soiñikoa darabilen askoren nagitasun, alperreteria ta ardurarik eza, euskerea ikasteko liburuakaz bururik ausi бага, bada eztaukee liburu bizkai euskerea irakatsi leienik*”. Bizkaierazko bertsioak Peru Abarkaren gehigarri gisa argitaratuak izan zirenez, liburu honen helburu pedagogikora moldatuta daude eta horrela, behin eta berriro azpimarratzen den ideia, hauxe da, apaizak, euskera landu behar dutela elokuentziaren maisuak izateko. Beraiantzako “*Versiones...*”en erabilgarritasuna bere hizkuntz ereduan egongo litzateke, eta ez tradizio klasikoaren transmisio ideolojikoan. Beraz, bizkaierazko bertsioan Mogelek azaltzen duen kezka bakarra predikatzailen hizkuntz hezkuntza da.

### III.2. Testuen transmisio ideolojiko: Antzinatearen irudia

“*Versiones bascongadas...*”etako testuak ikuspegi historiko batetik aztertzen badira, hasteko, testuen arteko nahaste kronolojiko azpimarratu beharko genuke. Irakurketan ikusten den lehenengo gauza deigarria gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsioetako etsenpluen orden aldaketa da: Alexandroren izqundea bere eritasunean bere *Adisquide ta sendaguillai*, Catilinarene izqueta erreguzkoa bere soldaduai, Ciceronen I.a izqueta Batzarrean eguiña Catilinarene contra, Ciceronen II.a izqueta Catilinarene contra Germanicorene izqundea soldatu Scipionen izqueta nagusi gaste bati, Gaiztoen viotzac zauritzen ditu barreneco arraceta Talisco maisuaren billaukeria; Alejandroren berbakuntzea bere gaisotasunean adiskide ta osagileea, Catilinarene iardun erreguzkoa bere soldaduai matxinatuai, Germanikoaren berba iarduna soldadu matxinatuai, Eszipionen iarduna errege gazte bati, Marco Tulio Ciceronek Catilinarene kontra egiñiko lenengo berbaldiaren aurrena, Marco Tulio Ciceronek Catilinarene kontra egiñiko bigarren berbaldiaren aurrena, Gizon dongeen biotzak zaurituten ditu barruko arrak, Falisko maisuaren billaikeria.



Beraz, badugu beste argudio bat baieztatzeko Mogelen ardua nagusia ez zela transmisio historikoa, baizik eta hizkuntzaren dotorezia. Ikuspuntu honetatik erabat ulergarria da kronolojiarekiko utzikeria. Ez zaio axola Scipio, Germanikoaren atzetik aipatzea edota Falisco maisuaren historia, Erromako sorkuntzaren aroan kokatzen dena Prinzipadoaren garaiko etsenpluak kontatu eta gero, idaztea. Berarentzat kezka nagusia hizkuntza da. Etsenpluen autoreen aldetik Mogelek ez du jarraitzen idazle-en kronologia, ikusten dugunez Quinto Curtiorekin hasten du, eta gero Salustio, Cicero, Tacito, eta Tito Libio erabiltzen ditu, ordena ezberdinean bertsiorearen arabera. Autore horietaz Mogeli interesatzen zitzaiona beren nagusitasuna zen Antzinatearen autoreen artean eta ez fideltasun kronologikoa. Mogelek, Inperioaren garaian autore hauek hizkuntzalari trebeak izatearen ospea zutelako aukeratu zituen eta ez Erromako historiagile nabariak zirelako.

Hau guztia esan eta gero, aitortu behar dugu Mogelek transmititzen duen Antzinatearen irudia obraren helburuak baldintzatuta dagoela. Ikusi dugunez, Antzinatea bera ez zen garrantzitsuena. Honen ondorioz, Mogelen obraren bidez ezagutzen den Antzinatea deskontestualizazioz jora dago. Honez gain, Klasikotasunaren ideia hau XVIII. mendeko pentsamoldean eta gizartean onartuta izateko moldatuta dago. Honen adibideak dira Mogelek itzulpenetan hartzen dituen lizentziak, bera elizgizona zenez, Erromako jainkoei zuzenduta dauden espresioak aurkitzen dituenen kristautzen ditu, besterik gabe: "*Neque enim di sinant tu Belgarum quamquam offerentium decus istud et claritudo sit...*",<sup>39</sup> "*Eztagiala Jaungoikoak gura inoiz Beljiarrak buru arroak erabiltea...*".

Hala eta guztiz ere, ukazina da testu hauen bidez Antzinatearen irudi bat transmitzen dela, baina "*Versiones bascongadas...*" en kasuan portaera moralaren adibide bat eskaintzeko zuzenduta daude. Mogel elizgizona zenez, hizkuntz dotoretasunaz gain mezuaz ere kezkatu zen eta horregatik etsenplu gehienak gizon publikoen erantzukizuna bultzatzeko aukeratu zituen. Azken finean, "*Versiones...*" etsenplu bilduma guztiak bezala, bertute katalogo bat baitira. Etsenpluen helburu nagusia gizartearen ikuspegi idealizatu eta moralista eskaintzea da eta horregatik Mogeli Antzinatea bera ez zaio axolik, baizik eta bertatik atera daitekeen bizitzarako adibide moralak. Ebanjelioetan bezala historigarritasuna ez da kezkarria, inportanteena mezua baita. Hori bai mezuaren indarra sendotzeko autoritateen izena aipatzen da, baina inportanteena irakurlearen hezkuntza moralak eta ideologikoa da. Beraz, Mogelek eskaintzen digun Antzinatearen irudia bikoitza da, alde batetik, hizkuntz perfektzioaren adibide bikainen iturria eta, bestetik, portaera moralak zuzenaren ereduak. Baina bi kasuetan Mogelek eskaintzen digun Antzinatearen irudia erabat kontestugabekoa da.

#### IV. Konklusioak

J.A. Mogelen "*Versiones bascongadas*"-en azterketatik ondorio nagusi batzuk atera ditugu. Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisioa, salbuespen eskasekin, elizgizonen eskuetan egon izan da. Hori zela eta, herri xehearentzat Antzinateari buruzko informazio gehiena sermoien bidez bideratzen zen. Ondorioz, askotan, eza-

(39) Tacito, *Ann.* I, 43.

gutza murriztua eta kontestugabea izaten zen. Maila jasoagoko informazioa, tradizio klasikoari gagozkiola, Mogelek "Versiones"-etan eskaintzen duena adibidez, idazleak berak adierazten digun bezala, gizarteko goi-mailako jendearentzat erreserbatuta zegoen: ilustratuentzat eta predikatzailentzat. Kultura mota hau eliteen hezkuntzarako gordetzen zen.

Beste aldetik, Mogelek euskararen apologian Aita Kardaberaren eredia jarraitzen du. Euskarak hizkuntza klasikoan antzera gaitasun erretorikoa erakutsi behar du, kultur hizkuntza bihurtzeko. Mogelen kasuan, euskarak behar-beharrezkoa du latinaren espresio ereduari hurbiltzea Europako beste hizkuntzen artean merezi duen tokia hartzeko. Euskarak, ezaguna izateko eta Europako jakintsuen interesa pizteko, gaitasuna erakutsi behar zuen kultura forma tradizionalen arabera; eta ezinbestekoa zen, orduan, trebetasuna erakustea Klasikotasunaren testu erretoriko nagusien aurrean.

Azkenik, ohartarazi nahi dugu, gure ustez, euskal literaturarako sermoigintzan dagoen etsenplaren harrobia ugaria eta emankorra dela ikerlariarentzat. Herri askotan egin den eredia jarraituz proposatzen dugu Euskal Literaturan, historiografian eta sermoigintzan erabiltzen diren etsenpluen bilduma bat osatzea. Modu honetan gure herriaren kulturaren eraikuntzari buruz piska bat gehiago jakiteko moduan egongo gara.

## Bibliografia

### 1. Iturriak

Moguel y Urquiza, J. A., 1802, *Versiones bascongadas de varias y oraciones selectas de los mejores Autores latinos*, Tolosa.

Mogel, J. A., 1994, *Peru Abarka*, A. Arejitaren edizioa, Bilbo.

### 2. Bibliografia orokorra

Akesolo, L., 1965, "De bibliografia mogueliana", *BRSBAP* 21, 1, 91-92 orr.

Altzibar, X., 1986, "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera*, 1, XXXI, 17-45 orr.

\_\_\_\_\_, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloarrak, Frai Bartolomé*, Bilbo.

\_\_\_\_\_, 1995, *J. Antonio Mogel Urkiza. Jaiotzatik 250. Urtemuga*, Eibar-Markina.

\_\_\_\_\_, 1991, *J.A. Mogel, Bidegileak*, Gasteiz.

\_\_\_\_\_, 1996, "Juan Antonio Mogel y su obra literaria", *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Vitoria, 323-355 orr.

\_\_\_\_\_, 1996, "Humboldt, Astarloa eta Mogel", *W. Von Humboldt: Un puente entre dos pueblos*, *RIEV* 41, 587-595 orr.

Barceló, J., 1982, "Humboldt en el País Vasco", *Viajar* 39, 75-79 orr.

Bidart, P., 1986, "Peru Abarca: espace imaginaire et paradigme perdu", *La production sociale des spaces*, Université de Pau, 27-47 orr.

Etxegarai, K., 1883, "Mogeltar izkribalari bikañei oriopena", *Euskal Erria*, VIII, 82.

\_\_\_\_\_, 1926, "Mogeldarrak eta euskera", *Euskera* VII, 1, 8-25 orr.

Garate, J., 1935, "Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel", *Ensayos euskarianos*, Bilbao, 215 orr.

\_\_\_\_\_, 1936, *La época de Pablo Astarloa, y Juan Antonio Moguel*, Bilbo.

\_\_\_\_\_, 1983, "Dos cartas inéditas de Guillermo von Humboldt dirigidas a Madrid", *P. Lafiteri omenaldia*, Bilbo, 775-782 orr.

- Humboldt, W. Von, 1933, *Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua cantábrica o vasca*, Donostia, J. Garateren itzulpena.
- Irigoyen, A., 1978, "La época de Astarloa, Moguel y Humboldt", *Euskal Erria (1789-1850)*, *Actas del Coloquio Internacional de Estudios Vascos*, Bayonne, 149-166 orr.
- Kortazar, J., 1982, "Mogel eta bere garaia", *ASJU*, XVI, 47-53.
- Larrañaga, L. F., 1970, "El proceso inquisitorial de Juan Antonio Moguel", *BAP*, 263.
- Lojendio, J. M., 1954, "Mogel", *Egan*, 2-4, 16-24 orr.
- Muñoz Valle, I., 1971, *Actitudes ante la cultura clásica a lo largo de la historia*, Madrid.
- Rüegg, W., 1959, "Antike" als Epochenbegriff", *Museum Helveticum* XVI, 111 orr.
- San Martín, J., 1959, *Juan Antonio Mogel. Bere bizitza eta lanak*, Zarautz.
- Verástegui, F., 1996, "La RSBAP, W. Von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política", *W. Von Humboldt: Un puente entre dos pueblos*, *RIEV* 41, 511-527 orr.
- Villasante, L., 1962, "Miscelánea. Juan Antonio Moguel, estudiante en el colegio de jesuitas de Calatayud", *BAP* 325-327 orr.
- \_\_\_\_\_, 1964, "Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel", *BAP*, 61.
- Zelaieta, A., 1979, *Peru Abarkaren berrirakurtzea*, Donostia.
- Zenbait Idazle, 1960, "J.A. Mogel", *Euskerak*, 23-183 orr.